

LOTUREN PROPIETATEAK

ADIBIDEA

Substantzia kimiko hauen artean : K, Ne, CaCl₂, C(diamante), NH₃

a) Bakoitzaren egitura giro tenperaturan

b) Esleitu substantzia bakoitzari urtze-tenperatura bat eta zer lotura puskatuko den : -248°C, 64°C, -77.73°C, 782°C, 1713°C.

c) Eroaletasun elektrikoa

	K	Ne	CaCl ₂	C(d)	NH ₃
a)Bakoitzaren egitura giro tenperaturan	Lotura metalikoa Katioiak era ordenatuan espazioan kokatzen dira, hodei elektronikoa katioen artean . Sare tridimentsionalak osatzen dira. Giro tenperaturan SOLIDOAK DIRA.	Gas geldoa izanik ez du loturarik osatzen. Atomo askez osatuta. GASA da.	Lotura ionikoa atomoen artean. Ioiien arteko erakarpen elektrostatikoak ematen dira. Ca-k 2e ⁻ erabat ematen dizkielako Cl ⁻ ei , Cl ⁻ ioiak osatuz.Horregatik Ca bakoitzak bi kloro behar ditu neutraltasun elektrikoa lortzeko. Espazioan ioiak era ordenatuan kokatuko dira sare kristalinoak osatuz. SOLIDOAK DIRA	C atomoen artean lotura kobalentea ematen da. Lotura KOBALENTE ATOMIKOA Sare kristalinoak osatzen dituzte non karbonoak era ordenatuan kokatzen diren. Oso solido gogorak dira. SOLIDOAK DIRA.	<u>A)LOTURA INTERATOMIKOA</u> kobalentea da. Konposatu kobalente molekularra osatzen da AX ₃ E, Molekularen geometria piramidal trigonala eta molekula polarra da . <u>B) LOTURA INTERMOLEKULARRA</u> Molekula polarra denez Van der Waals indarrak erakarpen elektrostatikoak dipolo-dipolo izango dira eta gainera H atomo txikia oso erraz gerturatzen da beste molekularen nitrogenora (nahiko elektronegatiboa delako) hidrogeno zubiak osatzen. GASA DA
b)Esleitu substantzia bakoitzari urtze-tenperatura bat: -248°C, 64°C, -77.73°C, 782°C, 1713°C.	64°C Alkalino bat denez nahiko baxua izango da. Urtzean LOTURA METALIKOA puskatuko da, INDAR INTERATOMIKOA.	-248°C	782°C Urtzean LOTURA IONIKOA puskatzen da INTERATOMIKOA.	1713°C. Urtzean LOTURA KOBALENTE INTERATOMIKOA puskatzen da.	-77.73°C Urtzean INDAR INTERMOLEKULARRA puskatuko da, H zubiak hain zuzen ere. Intermolekularren artean sendoena da baina jarraitzen du ahula izaten eta erraz puskatzen da.Horregatik neonena baino altuagoa da.
c)Eroaletasun elektrikoa	Bai solido egoeran bai urtuta OSO EROALE ONAK DIRA elektroioiak higiduran daudelako.	ISOLATZAILEA	SOLIDO egoeran EZ DA EROELEA. URTUTA edo URETAN DISOLBATUTA EROALEA da ioiak aske geratzen direlako CaCl ₂ → Ca ⁺² + 2Cl ⁻	ISOLATZAILEA	ISOLATZAILEA